# ERRESERBA FINKOEN ARAUTEGIA

1. Alokatu daitezkeen instalakuntzak hauek dira:

   - Musakola: kantxa, tenis pistak eta padel pistak.
   - Antoña: kantxa, frontoiak eta squash-a.
   - Iturripe: frontoiak, tenis pista eta kanpo zelaiak.
   - Uarkape: frontoia eta errebotilloak.
   - Mojategi: futbol eta rugby zelaiak.

2. Instalakuntzak erreserbatzeko *erreserba finkoaren eskaera orria* entregatu beharko da lauhilero. Prentsa ohar eta informazio kartelen bidez abisatuko da entregatzeko data. Modu honetan urtea epealdi hauetan zatituko delarik:

   - Urtarrila, otsaila, martxoa eta apirila.
   - Maiatza, ekaina, uztaila eta iraila.
   - Urria, azaroa eta abendua.

Abuztuan erreserba guztiak anulatzen dira.

3. Taldeko ordezkari bakoitzak *erreserba finkoaren eskaera orria* entregatu beharko du AUKEAko bulegoetan, bere datu pertsonalak eta taldeko partaideenekin.

3.1 Taldeko partaide guztiek derrigorrez abonatuak izan behar dute bai "Kiroldegiko abonua" edo "Abono plusa"-ren modalitatean ("Igerilekuko abonuak" ez du balio).

3.2 Instalakuntzak erreserbatzeko gutxieneko partaideak:

   - Kantxak: 10 pertsona.
   - Frontoiak, squash, tenis eta padel pistak:

- 2 pertsona ( lehentasuna 4 pertsonako taldeak)
- Futbol eta rugby zelaiak: 20 pertsona.

4. Beharrezkoa den kointzidentzia kasuetan soilik erabiliko da zozketa.
5. Abonatu bakoitzak instalakuntza eta ordu bakarra erreserbatu ahal izango du.
6. Erreserba finkoetatik libre geratzen diren orduak erabiltzaileen erreserba puntualak egiteko izango dira. Erreserba finkoa batean daudenek, egun berean beste ordu bat hartzeko, egunean bertan egin beharko dute erreserba puntuala.
7. Mankomunatuak, Arrasatekoak izan ezik,
8. Instalakuntza ez dela erabiliko aurrez ez abisatzeak, automatikoki erreserba finkoa galtzea eragingo du.
9. AUKEAko Zuzendaritzak esango du noiz dagoen instalakuntza erabiltzaileentzat praktikaezin edo arriskutsu.
10. AUKEAk instalakuntzen erabilera ordutegiak mugatzeko eskubidea du, besteak beste: entrenamenduak, ikastaroak, txapelketak, erreserbak eta lehiaketak.

**AUKEA Zunzendaritza**